

DOMOHOUSE

Funag ikasgaien proiektu bat egitea proposatu ziguten, proiektu horren helburua zerbitzu edo ondasun bat sortzea zen. Hasieran brainstorming bat egin genuen, indibidualki. Bertatik hainbat ideia atera ziren eta gure gustukoena etxeko domotikarekin zerikusia zuen aplikazioa egitea izan zen. Gero, aukeratutako ideia garatu genuen eta taldeka lan egiten hasi ginen. Lauron artean izen bat bilatu behar genuen. Aplikazioaren izena puntu garrantzitsu bat, erosleak logoarekin batera ikusiko duen lehengoa delako. Domohouse izena erabaki genuen, izen horren bitartez argi geratzen delako aplikazioaren funtzioa. Domo (domotika) eta House (etxea).

Domohouse ez da gaur egun merkatuan aurkitu dezakezun aplikazio ohiko bat. Zure etxe osoaren domotika, mugikorrean duzun aplikazio baten bidez kontrolatzea eskaintzen dizu. Bluethooth bitartez, mugikorra eta etxeko domotika konektatu egiten dira. Nolabait segurtasun maila bat ematen dizu. Etxetik kanpo egonda ere etxea kontrola dezakezulako.

Aplikazio hau, ondasun ukiezin bat da, zerbitzu bat eskaintzen duena. Hau da, ondasuna erosterakoan ez du zuzenean zure beharra asetzen, baizik eta luzerako zure beharra asetuko duen zerbitzu bat eskaintzen dizu. Agian aplikazioa erosterako momentuan ez duzu zuzenean domotika kontrolatu behar, agian etxean zaudelako, baina etxetik urtengo zaren momenturako erabilgarria da.

Honen bitartez asetu nahi duen behar nagusia etxeko domotika kontrolatzea da; horren barruan zenbait faktore desberdin aurkitzen ditugu: Argiak amatatu eta itzali, berogailua kontrolatu, bitrozeramika programatu, labea programatu, aire girotua kontrolatu...

Aplikazio hau adinez nagusiak direnentzako pentsatuta dago, bereziki etxe baten jabea izateko 18 urte baino gehiago izan behar dituzulako.

Adibidez: Gaur egun, gazte asko hamazortzi urterekin atzerrira edo beste hiri batera joaten dira bizitzera, ikasketak direla eta. Beraz, nahiz eta ohikoena ez izan, kontutan hartu behar ditugu.

Bestalde aplikazio berritzaile honek hainbat abantaila eskaintzen ditu: hizkuntza desberdinen aukera(ingelesa, euskera, frantsesa, alemana eta gaztelera), aplikazio merkea (prezioa euro batetik beherakoa), zure datu pertsonalen babesa eskaintzen du, hau da, aplikazioa erosteko momentuan datuen babesaren formulario batzuk onartu behar dituzu, mugikorra galdu izanez gero edo arazoren bat izanez gero gure web orrialdean aurkitu dezakezu telefonoari deituz, blokeatu daiteke aplikazioa, etxean gertatu litezkeen istripuak edo arazoak murrizten ditu.

Aplikazioaren erabilera erraza da: Aplikazioa saldu eta zuzenean agertuko zaizu domotika konektatzeko aukera, ez duzu ezer gehiago egin behar. Gainera aplikazioa deskargatzeko momentuan argibide batzuk agertuko zaizkizu hasieran. IOS eta Android sistemetarako eskuragarria izango da, teknologia aurreratzen doan heinean aktualizazioak izango ditu. Aktualizazioak egonda, notifikazioak helduko zaizkizu jarritako mugikor zenbakira.

Aplikazioa online da baina bulegoa momentuz Durangon (Bizkaia) egongo da, bezeroen zerbitzua 24 ordu eskainiko da. Domohousek produkturik ez duenez ekoizten ez du ingurunean inpaktu negatiborik sortzen beraz, bezeroengatik duen erantzuna positiboa da eta beraien bizi kalitatea hobetzen du.

